



Uztailak 2, 3 eta 4



9:00-14:00



Donostiako EHU

## 14. Bizitzaren eta bizitzarako pedagogia; baliabideak eta tresnak

Nola lagundu diezaiekegu ikasleei euren ikaskuntzan eta garatze prozesuan? Non indartu gaitzke irakasleok irakasteko eta ikasleak hezteko? Nola indartu irakaskuntza-ikaskuntza prozesua? Ikuspegi sistemikoak hezkuntza errealitatea begirada zabalago batez ikustea ahalbidetzen digu. Bide batez, Pedagogia Sistemikoak irakasleoi baliabideak eta tresnak eskaintzen dizkigu ikaslearen bidelagun izateko.

Pedagogia Sistemikoaren oinarriak aztertuz eta jasoz, gure begirada zabaltzea eta baliabide berriak ezagutzeta eta lantzea da ikastaroaren helburua.



Irakasleentzat, tutoreentzat, espezialistentzat, koordinatzaileentzat, aholkularientzat edota eskolako beste edozein funtzioetan dabilzantentzat.



Parte-hartzaileen beharretara egokituz, bizitako esperientzietatik abiatuko gara. Egoera konkretuak irudikatuko ditugu eta Pedagogia Sistemikoan oinarritutako baliabideak modu praktikoan eskainiko dira.

### LANDUKO DIREN GAIAK

- Eskolaren gaur egungo beharrrak eta horiekiko begirada.
- Pedagogia Sistemikoaren oinarriak.
- Familia eta eskolaren arteko zubiak. Zer behar dute gure haurrek eta gure ikasleek gaur egun?
- Irakaslearen lekua. Nola kokatu dagokigun lekuan gure funtzioa modu eraginkorrean eta osasungarrian gauzatu dezagun.
- Elkarbizitza eta gatazken bideratzea, begirada sistemikoa ulertuz eta barneratuz.
- Kasuak. Parte-hartzaileek aurkeztutako kasuak.



### Naiara Jimenez Mugertza

Aholkularia, PTa eta LHko irakaslea. LHko tutore lanetan ari da egun Ibarra Uzturpe Ikastolan. Pedagogia Sistemikoan formatzailea Euskal Herrian (CUDEC unibertsitatearekin elkarlanean).

### Belen Azkarate Egaña

LHko irakaslea eta PTa, entzumen murriztua duten ikasleen komunikazio bideratzailea. Pedagogia Sistemikoan diplomatua, Formazioaren koordinatzailea Bergaran (CUDEC unibertsitatearekin elkarlanean).

Eman izena

